

## **ASIER ERRASTI EIBARKO XXIII. FILM LABURREN JAIALDIA 2022**

Antolatzaileak: **Eibarko Udala** eta **Plano Corto** elkarteak.

### **1.- PARTE-HARTZAILEAK**

- Parte hartu ahal izango dute Espainian jaio edo bizi diren film laburren egileek.
- Parte hartzen dutenek **egindako film laburra 2021eko urtarrilaren 1etik** aurrerakoa izan behar da.
- Aurreko edizioan parte hartu duten lanak ezin izango dira berriz ere aurkeztu.
- Ez dira onartuko komunikazio kanpainak, ez eta izaera komertziala duten filmak.
- Film laburraren produkzio urtea amaierako tituluetan azaldu behar da.

### **2.- ATALAK**

Lehiaketak 2 atal ditu: **fikzioa** eta **animazioa**.

### **3.- IZEN-EMATEA ETA FILM LABURRAREN IGOERA**

#### **3.1- Izen-ematea:**

Izen-ematea **elektronikoki (Internet bidez) egin behar da:**  
[www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak](http://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak)

Lehiaketan parte hartu nahi duten pertsonak eta elkarteek **formularioa elektronikoki bete beharko dute eta eskaerari dokumentu hauek erantsi:**

- Film laburraren sinopsi txiki bat (bi lerrotan).
- Film laburraren fotograma bat esku-orrirako.
- Film laburraren fitxa teknikoa.

Ez dago mugarik, ez aurkeztutako lan-kopuruan ezta jorratutako gaietan ere.

Lan bakoitzeko eskaera bat egin beharko da.

#### **3.2- Film laburraren igoera:**

Filma izena ematen den leku beretik edo Vimeo webgunetik igoko da.

Film originala MP4 formatuan jaitsi ahal izan behar da.

Laburmetraia igotzeko bi aukera daude, izena ematen den leku beretik edo Vimeo-tik:

#### **1. Izena ematen den leku beretik**

- a.) Film laburra igotzeko, leiho berri bat irekiko da, non laburmetraia igo beharko da.
- b.) Filma aukeratuta eta igota, itxi leiho hau.
- c.) Berriz ere eskaera orrian zaudela "Artxiboa igo dut" klikatu beharko da eta formularioa betetzen jarraituko da eta beharrezkoa den dokumentazioa eransten.

## 1. Vimeo

- a.) Era pribatuan igo beharko da film laburra, **sarrera mugatuarekin eta pasahitza erabilita**. Esteka eta pasahitza izena emateko formularioan adierazi beharko dira.

Lanak aurkeztu behar dira **euskaraz, gazteleraz edo hizkuntza horietako batean azpigitulaturatuta**.

Gehienez jota, eta kredituak barne, **20 minutu 00 segunduko** iraupena izango dute lanek.

**2021eko urtarrilaren 1a** baino lehen egindakoak ezin dira aurkeztu.

## 4.- EGUTEGIA

- **Izen-ematea: 2022ko maiatzaren 16tik uztailaren 15era.**
- **ASIER ERRASTI Eibarko XXIII. Film Laburren Jaialdia: 2022ko azaroaren 7tik 12ra.**
- **Erabakiaren jakinarazpena eta sari-banaketa: 2022ko azaroaren 12an.**

## 5.- EPAIMAHAIA

Lehiaketarako bereziki izendatutako epaimahaiak erabakiko du zein lan aurkeztuko diren.

Epaimahaiaren erabakia bi aste lehenago jakinaraziko zaie sarituei.

Zalantza bat izanez gero, epaimahaiak erabakiko du zer egin; lanak jaialdiaren barruan zein hurrenkeratan erakutsiko diren ere epaimahaiak erabakiko du. Erabaki horiek apelaezinak izango dira.

## 6.- PROIEKZIOAK

Hautatutako lanak **ASIER ERRASTI Eibarko XXIII. Film Laburren Jaialdiaren barruan erakutsiko dira 2022ko azaroaren 7tik 12ra, Eibarko Coliseo antzokian.**

## 7.- SARIAK

Sariak honako hauek izango dira:

- **LEHEN SARIA** Javier Aguirresarobe (fikzioa): 700 €.
- **BIGARREN SARIA** Javier Aguirresarobe (fikzioa): 500 €.
- **Euskarazko film laburrik onena:** 700 €.
- **Animaziozko film laburrik onena:** 700 €.
- **Eibarko film laburrik onena:** 200 €.

Sarituak zeintzuk izan diren **2022ko azaroaren 12an** egingo den **amaierako ekitaldian** jakinaraziko da. **Derrigorrezkoa** izango da **egilea** edo haren ordezkariaren bat bertan **egotea**.

Epaimahaiaren ustez lanek nahikoa kalitaterik ez badute, sariak eman gabe geratuko dira.

## 8.- OHARRAK

Antolatzaileek uste dute parte-hartzaileek aurkezten dituzten obrak **erakusteko eskubideak** dituztela. Nolanahi ere, oinarri hauek haustea dakarren edozein erantzukizunetatik salbuesten dira antolatzaileak.

Bidalitako lanak **Eibarko Udaleko Artxiboan eta Plano Corto Kultur Elkartean** gordeko dira, kultura- eta prestakuntza-kanalean zabaltzeko, eta merkataritza- edo irabazi-arrazoiengatik jendaurrean erakutsiko ez direla bermatuko da.

Parte-hartzaileek lanen **emisio-eskubideak lagatzeko** konpromisoa hartzen dute, Jaialdirako eta Eibarko Udalak eta Plano Corto Kultur Elkarteak antolatutako irabazi-asmorik gabeko beste jarduera batzuetarako.

Lehiaketara obrak aurkezteak oinarri hauek erabat onartzea dakar.